

14. ARGAZKI LEHIAKETA 2021 / Gaia: "ESAERA ZAHARRAK"



Segurako Udalak, 2022ko egutegia argitaratzeko helburuarekin, 14. ARGAZKI LEHIAKETA antolatu du.

Urtero bezala, herriko merkatari eta zerbitzuek egutegiarekin kolaboratuko dute.

1. Argazkiak orijinalak, ukitu gabeak, argitaratu gabeak eta saritu gabeak izan beharko dute.
2. Egile bakoitzak gehenez **hiru argazki** aurkeztu ahal izango ditu.
3. Gutxienezko erresoluzioa 300 pixel, jpg edo tiff formatuan aurkeztuko dira.
4. Argazkiak **SEGURAn** ateratakoak izan beharko dute eta hori ziurtatzeko herria edo bertako eremu/elementuren bat agertuko beharko da.
5. Argazkiak udaletxean bertan aurkeztuko dira **AZAROAREN 12a** bitartean, emailez kultura@segura.eus helbidera bidalita: Argazkiak, argazkien izenburuak, egilearen izen-abizenak, telefonoa eta helbidea jarrita (jasotakoan mezua bidaliko da).
6. Lehiaketatik kanpo geldituko dira bereizkeria, arrazakeria, homofobia, indarkeria edo sexismoa iradokitzen duen argazki oro.
7. Lehiaketan parte hartutako argazkiak Udalaren jabetzara pasako dira eta eskubideak Udalak izango ditu.
Beraz, Udalak argazkien erreprodukzioak irabazpiderik gabeko ekimenetan erabili ahal izango ditu betiere egilea aipatuz.
8. Argazkiak ongi zainduko dira. Hala ere Udalak ez du bere gain hartzen suerta daitekeen inolako kalteren erantzukizunik.

Lehiaketan parte hartzeak OINARRI hauen onarpena suposatzen du:
Seguran erroldatua dagoen edonork eta Segurako edozein Elkarte edo taldek parte hartu ahalko du.

SARIAK: IRABAZLEA: 300€ / 2. SARIA: 150€

Sari banaketa:

Abenduaren 17an, 19:00etan,
15. Euskal Liburu, disko eta jostailuen azokan

EPAIMAHAIA ETA IRABAZLEEN ZERRENDA:

Epaimahaiaren osaera Udalak erabakiko du, berdintasun irizpideak jarraituko direlarik.
Epaimahaiak sariak eman gabe utzi ahalko ditu eta honen erabakia apelaezina izango da.
Epaileek, argazki sarituak aukeratutakoan jakingo dute egilea nor den. Argazki aukeratuen zerrenda, AZAROAREN 19an, segura.eus webgunean jakitera emango da.

Edozein duda edo argibidetarako:
kultura@segura.eus / 627449161